

LIBURUAK

Betiko lotsaizunez beterik

Bat ohitu egiten da gauzak geroz eta gogorrago bihurtzeko; harrizteari uzten dio batek, gogor baino gogorrago zena are eta gogortzenago dela ikusteaz». Horrelakoxe errota-ri esaldiak dakartza John Maxwell Coetzeeen *Disgrace* liburuen euskal bertsoak, Nobel eta Booker (birritan) sariak irabazi dituen idazleari zor zaion begirunez euskaratu du-eta Jokin Zaitegi itzulpen saria bereganaturiko Oskar Aranak. Azken buruan, Coetzeeek berak ere itzulpengintza maizten izan du. Gainera, euskaldunon pozgarri, jatorrizko izenburua ez digu eman beste hizkuntza batzuetan legez, ustez, gardenago baino iruzurtiago den *zoritxar* berbaz itzulita ekarri, zoritxarra bera ez baita, soilik, liburuen gaia; lotsaria, desohorea, arrotzasuna, besteengandiko eta herriko erbestea bera baizik. Hegoafrikako apartheidaren inguruan eta ondorioz eraturako bizierak, egoerak eta sentimenduak azaltzeko bidea dugu metafora handi, parabola moduko hau. Sentipen unibertsalak, itxuraz, azal estilistiko hotz batez jantzita.

Nobel saridun gutxi lortzen izan du Coetzeeek bereganaturiko onarpen maila bera. Ez da ha-



'LOTSAIZUNA'

Egilea: John Maxwell Coetzee.
Itzultzailea: Oskar Arana.
Jatorrizko izenburua: 'Disgrace'.
Argitaletxea: Elkar. **Urtea:** 2004.
Orrialde kopurua: 284.

rrigarria idazleak inon ere ezaren erditik idazten duenean. Ordea, horrekin erantzen dio unibertsaltasuna. Zenbateraino eta metafora itzel honek euskal irakurketa eta interpretazio halako bat ere edukitzea. Gatatzaren erdian erraz heltzen zaiolako gizakiari lotsaizuna. Coetzeeen lanetako pertsonaiak ez dira handi-mandiak, eta bizi izaten duten dramaren gazi-gezek etsipenaren zidorretik eroaten dituzte. Beti jakintsuago, bai, baina, nonbait, etsiak hartuta.

Idazle batzuek isiltasuna erabili gura izaten dute gaitzat, Coetzeeek ekintzarik eza-edo darabil

langai. Eta irakurleari dagokio ezer ez egite horretan irautea ala egoera iraultzen ekitea. Prosa gardena, beirazkoa darabil. Diamante bezain ederra izanda, gogor-gogorra gertatzen da errealitate labanarik zorrotzenaren antzera erruki barik ebakitzera-koan eta, behar denean, mozte-rakoan ere.

Aldez, eleberriko protagonistaren eta zoritxarrak bizi naufragio baten kronika dira, inguruko gizartea eta mundua bera astindurik astindura doala. Egoerarik sutsuenak hoztasun halako batez azaltzen ditu, seguru asko, idazlea bera, pertsona moduan, txiki-txikitik ekandu zelako inguruko gizartean arrotz sentitzen. Halere, Afrikar Kongresu Nazionalak berak, hegoafrikar beltz gehiengoaren ordezkari moduan, bere saria idazle zuri bati eman zion.

Idazlea ez da bizi duen gizartearen aitzindari edo aldarrigai sentitzen, askatasun egarria duen pertsona baino, kateaturiko edozein presoren antzera. Horrengatik erabiltzen du behin eta berriro bere burua askatu eta argia ikusten duen jendea mintzagai.

Ustez herri zibilizatuago izate-ak ez digu, berez, animaltasunik

kentzen, bestela dela pentsatu gura izaten dugun arren. Idazlea horren jakitun da, bazter batean geratu eta gauzak zelan ikusten dituen narrazioa neketzat lepoan hartu duenez gero, sariek ekarri ohi duten zurrumbilatik urrun, gauza guztiei zorrotz begiratzeak barruan arrotzasun mingarri halako bat sortu dezakeen arren. Hala jokaterakoan, ordea, hain da zaila panfletoak edo kiskalita jaiotzen diren orriak ez sortzea! Baina Coetzee-ek lortu ere lortu egiten du. Literatura huts-hutsa eginda, oihartzun handiagoa sortzen du.

Jaioteritik edo betiko bizilekuk hanka egin beharra nonahiko eta noiznahiko jazoera da. Halere, ozen zein ezpain artetik, epitafo moduko bat jarriko digu begi aurrean liburua: erbestera-tua izatea bizirik egotea da.

Azalaren atzealdeko hasiera-ko esaldiak, beharbada, ez du ematen barruko edukiaren albiste zehatzik, baina, handi goen ordainez izan dadila. Oxala egia ez balitz liburuen esana: «Burrezurrak eta, hurrengo, izaera: horiek dira gorputzaren atalik gogorrenak». Izan ere, ezin ei zaito inori zoriontsu esan harik eta azken egunaren argia ikusten duen arte. **✪ Karlos del Olmo**



'LURRUNAK EZ DU ORAINDIK KRISTALIK ESTALI'

Egilea: Eneko Barberena.
Argitaratzailea: Gaztesarea.
Urtea: 2004.

Akademizismorik nahiz erudizio hutsalik gabe, mundua ikusteko bere modua agertu du Eneko Barberenak bere aurreneko poema liburuan, poesia zuzen eta biziz, poesia irakurtzen ohitua ez dagoen irakurleak ere aise ulertzeko moduan. Gorka Rubioren argazkiek eta maketazio landuak ere erakargarri egiten dute Gaztesareak kaleratutako liburu hau.



'EGAN', 2004ko 3 / 4. zenbakia

Argitaratzailea: Euskarleriaren Adiskideen Elkartea.

Telesforo Monzon dute ardatz nagusi *Egan*-en iazko azken zenbakiek. Monzonen zortzi poema argitaragabe aurkezten ditu Koldo Izagirrek, eta Monzonez dihardute Xabier Mendiguren Elizegik, Pako Sodupe eta Piarres Xarritonek ere. Patxi Salaberri, Mikel Ugalde, Imanol Irigoien, Luis Mari Mujika, Pello Otxoteko, Iñaki Zubeldia eta beste hainbat egileren lanak ere badira.



'FILOSOFO PRESOKRATIKOAK'

Egilea: Askok.
Hautatzaile eta itzultzaileak: Javier Agirre eta Felipe Juaristik.
Argitaratzailea: Pentsamenduen Klasikoak.
Urtea: 2004.

Pentsalari presokratiko nagusien zati hautatuak bildu eta euskaratu dituzte Javier Agirrek eta Felipe Juaristik, liburu hau osatzeko: Anaximandro, Anaximenes, Heraklito, Miletoke Tales, Xenofanes, Pitagoras, Parmenides, Anaxagoras eta Apoloniako Diogenesenak, besteak beste.

Sei proposamen milurte honetarako

Italo Calvinoren proposamen horietatik ekar ditzake gogora Isabel Coixet zinema zuzendariaren *La vida es un guiñón* liburua. Idazle italiarrak zioen: «Hona zertan datzan nik literaturaren etorkizunaz dudana: bada gaur batzuk literaturak baino —berezkoak dituen baliabideekin— eskaini ezin izango dituenak». Eta zinema zuzendari katalanak, gogoeta hori osatuz eta zehaztuz, dio: «Gidoilariak —irakur bedi idazleek— hankazgoratu egin nahi izaten dute bizi garen oihan estrainio hau eta inor gutxi menturatu izan den giza arimaren bazter ezkutuetaraino eramanez nahi izaten gaituzte». Eta hona hemen proposamenak, eta antzekotasunak:

1. Arintasuna: bere mundu ikuskera agertzearen, Isabel Coixetek hizkera arinez, elur matazen moteltasunez bainoago euri tantes arintasunez, arinarin harilkatu eta josten ditu bere pentsamenduak liburu hone-tan, iragaitzaz bezala, izan zinez —eta arteaz—, izan gerraz,



'LA VIDA ES UN GUIÑÓN'

Egilea: Isabel Coixet.
Argitaletxea: El Aleph (Bartzelona). **Urtea:** 2004.
Orrialde kopurua: 111.

izan emakumeen kontrako bortizkeriaz...

2. Azkartasuna: Galileo hizpidera ekarri, Calvinok honako hau dio: «azkartasuna, arrazoi-namenduaren arintasuna, argudio ekonomia, baina baita adibideen fantasia ere». Eta horixe to-pa daiteke itxura batean asmo kontzienterik gabe eta berez-be-rez sortua dirudien liburu hone-tan.

3. Zehaztasuna: batik bat eguneroko bizimoldean oinarri-

tua, bizitzaren xehetasunak jasoz, bizitzaren arbitraritasuna eta absurdoa azaleratuz, baina batik batik galderak egiteko balio duena. «Ez dakit» esateko ausardia, ezjakintasuna onartzeko ke-mena, baita baita uste sendoak agertzeko ere: Bushen nagusie-riaren aurrean, senar ahalguzti-dunen aurrean, sufrimenduaren aurrean... («Benetan sufritu duen jendea ez doa Ana Rosa Quintanaren programara bere oinazea molde likitsean agertze-ra»).

4. Ikusgarritasuna: zinema, imajinen bidez pentsatzea, eta imajinak berak pentsatzea, eta alderatzea, hala nola egiten duen Wong Kar Wai zuzenda-riak: «batzuetan iruditzen zait mendebaldeko filmetan pertso-naiek ez dutela sekula jaten; munta handiko kontua zait haien ogibidea, haien bizitokia, lo egiteko eta jateko dituzten usadioak...».

5. Multiplizitatea: figura edo emaitza harmoniotsu bat sor-tzea baino areago, tonu, ikus-puntu eta hurbilketa bide des-

berdinak erabiltzea, azakeriatik ihesi joatea eta, agian, asmatzea. **6. Hasteko eta amaitzeko artea:** «Bizitza gidoi —aski bitxi— bat da», eta adi egon behar-ra dago gure begien bistan oraintxe dagoen istorioari antze-mateko, eta gero hori obra bate-an ahalik eta molderik eraginkor-renean mamitzeko. Eta abia-puntu gehientsuenetan ohean norbait eserita, zigarrak bat ho-an. Eta zenbait filmen amaierak, gogoko amaierak (Elia Kazan, Paul Schrader, Werner Herzog...). Eta arrakasta patuaren gutizia izaki, huts egitearen ede-rra gogoratu beharra.

Eta literaturaren osteko milurte berri honetarako liburu arin bat —eta sakona, Calvino-ren balore horietako bakoitzak bere aurkaria ere bereganatzen baitu—, kafe batekin, kafe bat hartu bitartean irakur daitekeena, eta, halaz gutziz, itxi bezain laster, film onekin gertatu ohi den bezala, berriro ere irakur-tzeko gogoia pizten duena, zer pentsa ematen duena. **✪ Patxi Zubizarreta**